

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 9,00 horas del día 12 de abril de 2019, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Iñaki Xabier Yoller Urdiroz, D. Mikel Gaztelu Alonso y D. Pedro Juan Karrika Narbaitz, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Luis De Potestad Tellechea, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

**1.- CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE AYUNTAMIENTO DE AURITZ/BURGUETE Y "NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA S.A." PARA LA PROMOCIÓN Y EJECUCIÓN DE LA RUTA CICLABLE DE MOVILIDAD SOSTENIBLE LOCAL – EUROVELO 3**

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad, para informar sobre el proyecto Mugibici (EuroVelo3). Se trata de un proyecto Poctefa cofinanciado con fondos europeos y en el que el Ayuntamiento de Auritz/Burguete participaría como asociado, debiendo para ello firmar el siguiente convenio:

**"CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE AYUNTAMIENTO DE AURITZ/BURGUETE Y "NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA S.A." PARA LA PROMOCIÓN Y EJECUCIÓN DE LA RUTA CICLABLE DE MOVILIDAD SOSTENIBLE LOCAL – EUROVELO 3**

*Exponen:*

*I. Que EuroVelo es la red europea de rutas ciclistas de larga distancia que conectan todo el continente. La red está impulsada y coordinada por la Federación Europea de Ciclistas (European Cyclist Federation, ECF). Las rutas están diseñadas para uso y disfrute tanto de cicloturistas de larga distancia como de los propios vecinos para sus desplazamientos diarios y de ocio.*

*II. De entre todas ellas, la EuroVelo 3 (EV-3) “Ruta de los Peregrinos” (Trondheim-Santiago de Compostela) discurre por la Comunidad Foral de Navarra y su promoción fomenta la movilidad local sostenible y el cicloturismo, así como el desarrollo rural, contribuyendo a frenar el despoblamiento y estimular el desarrollo económico de la zona de influencia de la ruta. Se adjunta, como Anexo 1, un mapa con el trazado de la ruta EuroVelo 3 a su paso por Navarra.*

*III. El ayuntamiento desea acometer las actuaciones necesarias para adecuar, a dicha ruta, en el término municipal de Auritz/Burguete, terrenos que son íntegramente de su propiedad. El trazado de la ruta, acotado al citado municipio, se indica en el mapa Anexo 2.*

*IV. NASUVINSA, ente instrumental de la Administración Foral, tiene, entre sus fines, la cooperación y prestación de asistencia técnica, jurídica, económica y administrativa a las Administraciones Públicas y sus entes, en materia de urbanismo, medio ambiente, vivienda y desarrollo territorial sostenible, por lo que la promoción de la EV-3 contribuirá a alcanzar dichos objetivos y, a petición de Auritz/Burguete, acepta la solicitud de sensibilización y ejecución de la citada ruta local siempre que se cumplan las condiciones de viabilidad legal, técnica y económica del proyecto, de forma que no se comprometa mayor importe de inversión para cada fase de urbanización, que el importe obtenido mediante financiación pública, a través de las correspondientes actuaciones o proyectos de carácter foral o comunitario.*

*V. En consideración a lo expuesto, las partes convienen la promoción y ejecución de la ruta ciclable EV-3, tramo Auritz/Burguete, según las siguientes:*

#### ***ESTIPULACIONES***

***1. Responsabilidad de la promoción, sensibilización en movilidad sostenible y ejecución de la ruta ciclable de movilidad sostenible local EuroVelo 3***

*La Sociedad Pública NASUVINSA asume las labores de sensibilización en movilidad sostenible y la promoción y ejecución de la ruta EuroVelo 3 en la pista forestal ubicada en término municipal de Auritz/Burguete, descrita en el mapa del Anexo 2 adjunto, y en las condiciones establecidas en el resto de las cláusulas contenidas en este Convenio.*

*El inicio de tales labores de promoción, por parte de NASUVINSA, estará supeditado a la aprobación de los correspondientes proyectos, de ámbito foral o comunitario, que garanticen la financiación completa de las obras a acometer.*

***2. Ámbito y tipología de la ruta***

*La ruta ciclable de movilidad sostenible local EuroVelo 3 se considerará, por parte de NASUVINSA, como ruta de movilidad sostenible para el desarrollo económico y rural de su ámbito de influencia.*

*El ámbito de la ruta abarcará, como máximo, el definido en el Anexo 2, dentro del término municipal de Auritz/Burguete, y se desarrollará en una única fase o unidad de ejecución, o ambas, con sus respectivos proyectos de adecuación, cumpliendo las recomendaciones de la ECF para las rutas ciclables y fomento de la movilidad sostenible rural.*

*La ruta ciclable de movilidad sostenible local EuroVelo 3 definida en el expositivo II, por su carácter supramunicipal, se planificará mediante el instrumento de ordenación territorial PRSIS (Proyecto Sectorial de Incidencia Supramunicipal) incluido en la legislación vigente y según criterio definido por NASUVINSA, que se informará Al ayuntamiento para su visto bueno.*

***3. Colaboración municipal***

*Dadas las características de la actuación, se plantea, inicialmente, que la ruta ciclable de movilidad sostenible local EuroVelo 3 sea una ruta mantenida por la Administración Local, en el tramo de su propiedad, en el marco del sistema de captura de datos para mantenimiento de caminos:*

*<https://survey123.arcgis.com/share/02417b04a8c54e83b41c9a3fd5f67ace>, durante al menos los ocho años siguientes a la adecuación de la vía.*

*El ayuntamiento deberá incluir acciones de promoción de la ruta en su conjunto (EuroVelo 3) así como de la ruta en su localidad y los valores patrimoniales y naturales adyacentes a la misma.*

*En caso de que sea conveniente el reposicionamiento del ayuntamiento como promotora de la actuación, ambas entidades podrán modificar el convenio con este objeto, compensando EL AYUNTAMIENTO a NASUVINSA por las inversiones realizadas hasta ese momento, y las ayudas serán destinadas a la reducción de los costes de la promoción.*

***4. Elaboración de proyectos y ejecución de obras***

*La elaboración de los Proyectos de Ordenación del Territorio y de Obras de Adecuación correrán a cargo de NASUVINSA.*

*Igualmente, NASUVINSA ejecutará por su cuenta exclusiva las Obras de Adecuación previstas en los correspondientes proyectos legalmente aprobados.*

*La licitación de las obras, cuya contratación y pago realizará NASUVINSA directamente, se efectuará de acuerdo con la Ley Foral de Contratos Públicos, con observancia y aplicación de los principios de publicidad y libre concurrencia.*

*El ayuntamiento prestará toda la colaboración necesaria para la pronta tramitación de todos los Proyectos y documentos precisos para su ejecución, así como para la concesión de las licencias de obras necesarias sin repercusión de las tasas, impuestos o arbitrios de dichas licencias a NASUVINSA.*

#### **5. Contratación e inicio de las obras**

*La contratación de las obras de adecuación de la ruta se llevará a cabo una vez se hayan obtenido las preceptivas aprobaciones y licencias, y se cuente con la disponibilidad de los terrenos y servicios afectados que garanticen la viabilidad de dichas obras.*

#### **6. Autorización de uso de los terrenos necesarios**

*Dado el carácter demanial de los terrenos afectados y el interés público de las obras, el ayuntamiento autoriza y consiente, de forma gratuita, la ocupación de los terrenos de su titularidad afectados por la actuación, tanto los de carácter temporal para las obras como los de ocupación definitiva, y, a su terminación, recibirá la infraestructura para su integración y mantenimiento como parte de la red viaria pública.*

*Asimismo, la citada entidad autoriza y consiente, de forma gratuita, la constitución de cuantas servidumbres sean necesarias para la ejecución de las obras, autorización que alcanza tanto a las de carácter temporal, como a las que, de modo definitivo, hubieran de constituirse.*

#### **7. Cesión y conservación de espacios e instalaciones de uso público**

*Una vez realizadas las obras de adecuación de la ruta, el promotor las cederá al ayuntamiento que asumirá, desde entonces, su gestión y mantenimiento como parte de la red viaria pública.*

#### **8. Coordinación entre el Ayuntamiento y NASUVINSA**

*Con el fin de asegurar la coordinación y agilidad de las actividades necesarias para el desarrollo de las actuaciones que se deriven del presente Convenio, el Ayuntamiento y NASUVINSA, sin perjuicio de cuantos contactos directos y reuniones informativas y de coordinación entre su personal técnico sea preciso llevar a cabo, designarán una persona por cada una de las partes que actuará como coordinador técnico responsable y cauce permanente para el intercambio de información y seguimiento de la ejecución y cumplimiento del programa de actuaciones.”*

Tras un estudio del mismo, se acuerda por unanimidad:

- 1º.- Aprobar participar en el proyecto Mugbici (EruoVelo 3) como asociado
- 2º.- Aprobar el convenio de colaboración entre Ayuntamiento de Auritz/Burguete y "Navarra de Suelo y Vivienda S.A." para la promoción y ejecución de la ruta ciclable de movilidad sostenible local – Eurovelo 3
- 3º.- Trasladar a Nasuvinsa, el acuerdo adoptado para su conocimiento y efectos oportunos

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 10,00 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2019ko apirilaren 12an, 9:00etan, Udala bildu zen bilkura berezia egiteko. Bertaratuak: Iñaki Xabier Yoller Urdiroz, Mikel Gaztelu Alonso eta Pedro Juan Karrika Narbaitz; bilkura buru alkatea, Luis De Potestad Tellechea, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

**1.- AURIZKO UDALAREN ETA “NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA S.A.”REN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, TOKIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO TXIRRINDULA-IBILBIDEA SUSTATU ETA GAUZATZEKO –EUROVELO 3**

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta Mugibici (EuroVelo3) proiektuari buruzko informazioa eman du. Poctefa proiektua da, Europako fondoez lagundua; Aurizko Udalak proiektuan parte hartuko luke kide gisa, eta, hartara, honako hitzarmena sinatu

**LANKIDETZA HITZARMENA AURIZKO UDALAREN ETA “NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA S.A.”-REN ARTEAN, SUSTATZEKO ETA GAUZATZEKO TOKIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO BIZIKLETARAKO –EUROVELO 3 BIDEA**

**A D I E R A Z T E N D U T E:**

- I. *EuroVelo kontinente guztia lotzen duten distantzia luzeko bizikletarako bideen Europako sarea dela. Sarea Europako Ziklisten Federazioak sustatu eta koordinatzen du (European Cyclist Federation, ECF). Bideak diseinaturik daude bai distantzia luzeko zikloturistendako, bai auzokideendako, eguneroko eta aisialdiko joan-etorrietan erabiltzeko.*
- II. *Horien guztiengun artean, EuroVelo 3 (EV-3) “Erromesen bidea” (Trondheim-Santiago de Compostela) Nafarroako Foru Komunitatean barna doa eta bide horren sustapenak tokiko mugikortasun jasangarrria eta zikloturismoa bultzatzen ditu, bai eta ere landa garapena, herriak hutsik gelditzeari aurre eginez eta bidearen eragin eremuko garapen ekonomikoa sustatz. 1. Eranskin gisa mapa bat atxiki da, Eurovelo 3 bideak Nafarroan barna duen trazadurarekin.*
- III. *Kontzejuak behar diren jarduketak egin nahi ditu, bide hori Aurizko Udalaren dermioan egokitzeko, erabat kontzejuaren jabetzakoak diren lursailetan. Bidearen trazadura, aipaturiko udalerriari mugatua, 2. eranskinean adierazten da.*
- IV. *NASUVINSA Foru Administrazioaren ente instrumental bat da eta, bere xedeen artean du lankidetza eta aholkularitza tekniko, juridiko, ekonomiko eta administratiboa ematea Administrazio Publikoei eta beren enteei, hirigintza,*

*ingurumena, etxebizitza eta lurralte garapen jasangarriaren alorretan. Horrela, EV-3 sustatzeak lagunduko du helburu horiek erdiesten eta, Aurizko Udalak hala eskatuta, onetsi du aipaturiko tokiko bidea gauzatzeko eta sentsibilizazioa egiteko eskabidea, betiere, betetzen badira proiektuaren bideragarritasun legala, teknikoa eta ekonomikoa, halako moldez non ez den konprometitzen foru edo Europa mailako jarduketen edo proiektuen bidez eta finantzazio publikoz erdietsitako zenbatekoa baino handiagoa urbanizatze fase bakoitzean.*

- V. Adierazitako aintzat hartuz, bi aldeek EV-3 bizikletarako bidearen Aurizko tartea sustatzea eta gauzatzea hitzartzen dute, kontuan hartuz ondoko

## **Z E H A Z T A P E N A K**

### **1. Eurovelo 3 tokiko mugikortasun jasangarriko bizikletarako bidea sustatzearen, gauzatzearen eta mugikortasun jasangarrian sentsibilizatzearen gaineko erantzukizuna**

*NASUVINSA sozietate publikoak bere gain hartzen ditu mugikortasun jasangarriko sentsibilizazio lanak eta Eurovelo 3 sustatzea eta gauzatzea Aurizberriko kontzejuaren dermioan kokatuta dagoen eta 2. eranskinoko mapan deskribatua dagoen mendiko pistan, Hitzarmen honen gainerako klausuletan ezarritako baldintzetan.*

*Sustapen lan horiek NASUVINSAk hasiko ditu, baldin eta onesten badira Foru edo Europa esparruko proiektuak, egin beharreko lanen guztizko finantzazioa bermatzeko.*

### **2. Bidearen eremua eta nolakotasuna**

*Eurovelo 3 tokiko mugikortasun jasangarriko bizikletarako bidea, NASUVINSAREN aldetik, bere eragin eremuko landa garapen ekonomikorako mugikortasun jasangarriko bidetzat hartuko da.*

*Bidearen esparruak, gehienez ere, 2. eranskinean definituriko eremua hartuko du, Aurizberriko kontzejuaren dermioan, eta gauzatze fase edo unitate bakar batean edo bietan garatuko da, beren egokitzapen proiektuekin, ECFk bizikletarako bideak eta landa mugikortasun jasangarria sustatzeko emandako aholkuei jarraikiz.*

*Eurovelo 3 tokiko mugikortasun jasangarriko bizikletarako bidea, II. azalpenetan definitua, udalez gaindiko izaera duelako, indarreko legerian sartuta dagoen UPRS (Udalez gaindiko Proiektu Sektorial) lurraldearen antolamendurako tresnaren bidez planifikatuko da, NASUVINSAk definituriko irizpidearen arabera, zeinaren berri emanen zaion kontzejuari, onets dezan.*

### **3. Udal elkarlana**

*Jarduketaren ezaugarriak aintzat hartuz, planteatzen da, hasiera batean, Eurovelo · tokiko mugikortasun jasangarriko bizikletarako bidea tokiko administrazioak manten dezala, bere jabetzapeko tartean, bideetako mantentze-lanetarako datuak jasotzeko sistemaren* *baitan:*  
[\*https://survey123.arcgis.com/share/02417b04a8c54e83b41c9a3fd5f67ace\*](https://survey123.arcgis.com/share/02417b04a8c54e83b41c9a3fd5f67ace), gutxienez bidea egokitu eta ondoko zortzi urteetan.

*Kontzejuak, ekintzak egin beharko ditu bidea (Eurovelo 3) sustatzeko bere osotasunean, herrian berean eta baita inguruko ondare eta natura balioak ere.*

*Komenigarria bada kontzejua birkokatzea jarduketaren sustatzaile gisa, bi entitateek aldatzen ahalko dute hitzarmena xede horrekin. UDALAK NASUVINSARI konpentsazioa eman beharko dio ordura arte egindako inbertsioengatik. Laguntzak sustapenaren kostuak murriztera bideratuko dira.*

### **4. Proiektuak egitea eta lanak gauzatzea**

*Lurraldea antolatzeko eta egokitzapen lanetarako proiektuak NASUVINSAk eginen ditu.*

*Halaber, NASUVINSAk, erabat bere kargu gauzatuko ditu legez onetsitako ondoko proiektuetan aurreikusitako egokitzapen lanak.*

*Lanen lizitazioa, NASUVINSAk zuzenean kontratatuko eta ordainduko dituenak, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen arabera eginen dira, publikotasun eta lehia libreko printzipioak zainduz eta aplikatuz.*

*Kontzejuak beharrezko lankidetza oro emanen du, gauzatzeko behar diren proiektu eta agiri guztiak azkar tramitatu ahal izateko, bai eta ere beharrezko lanen lizenziak emateko, lizenzia horien tasa, zerga edo arielak NASUVINSAren kargu utzi gabe.*

## **5. Kontratazioa eta lanen hasiera**

*Bidea egokitzeko lanen kontratazioa eginen da beharrezko onespen eta lizentziak eskuratu direnean eta ukitutako lursail eta zerbitzuak eskura direnean, lanen bideragarritasuna bermatzeko.*

## **6. Beharrezko lursailak erabiltzeko baimena**

*Ukitutako lursailak jabari publikokoak direnez eta lanak ere interes publikokoak direnez, kontzejuak baimena ematen du eta onesten du, doan okupatza jarduketak ukitutako bere titulartasuneko lursailak, bai lanetarako aldi baterako ukituko direnak bai eta ere behin betiko okupatuko direnak. Lanak bukatzean, azpiegitura jasoko du, bide sare publikoan sartzeko eta mantentzeko.*

*Halaber, aipaturiko entitateak baimena ematen du eta onesten du, doan, lanak gauzatzeko behar den zortasun oro eratzea. Baimen horrek ukitzen ditu aldi baterako zortasunak, bai eta ere behin betiko eratu beharko liratekeenak.*

## **7. Erabilera publikoko instalazioak lagatzea eta zaintzea**

*Behin bidea egokitzeko lanak egin direnean, sustatzaileak kontzejuari utziko dizkio eta, honek, ordutik aurrera, bere gain hartuko ditu bidearen kudeaketa eta mantentze lanak, bide sare publikoaren parte gisa.*

## **8. Kontzejuaren eta NASUVINSAren arteko koordinazioa**

*Hitzarmen honen ondoriozko jarduketak garatzeko behar diren jardueren koordinazioa eta azkartasuna bermatzeko, kontzejuak eta NASUVINSAk, beren teknikarien artean beharrezkoak izan daitezkeen harreman zuzenak eta informazio eta koordinazio bilkurak galarazi gabe, ordezkari bana izendatuko dute, koordinatzaile tekniko arduradun gisa jardun dezan eta informazio trukerako eta jarduketa programaren gauzatze eta betetze-maila jarraitzeko hari iraunkorra izan dadin.*

Hitzarmena aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

- 1.- Mugibici (EuroVelo3) proiektuan parte hartza kide gisa.
- 2.-Aurizko Udalaren eta “Navarra de Suelo y Vivienda S.A.”ren arteko lankidetza hitzarmena onartzea; hitzarmen horren bidez tokiko mugikortasun jasangarriko txirrindularibilbidea (EuroVelo3) sustatu eta gauzatuko da.

3.- Hartutako erabakia Nasuvinsari jakinaraztea, jakin dezan eta dagozkion ondorioetarako.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 10:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.